

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juanito Unanue Aizpuru

*Azpeitia,
Gipuzkoa
(1932)*

Aurkibidea



Biografia



1932an jaio zen "Anguen" (Aranguren) baserrian. Ama bertakoa eta aita Aratz Errekako Antxumarri baserrikoa zituen, 11 anai-arrebatan bigarrena da. Eskolan, Urrestillan ibili zen. Baserritik bizi izan da, ardiak eta ganadua izan ditu beti etxean, eta gazta saltzera Donostia eta Oiartzunera hamaika bider joana da. 16 urterekin, Donostiako San Ignacio eskolara bidali zuten, eta arotz eta sukaldari lanetan aritu zen erdara ikastearen truke. Soldadutzan Gasteizen, Arakan eta Huescan ibili zen.

Zintak

AZP-067

- **Proiektua:** Azpeitiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2009-10-29
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Baserriaren eta familiaren historia

- **Erref:** AZP-067/002
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:01:05. **Bukatu:** 00:02:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Baserriaren historiari buruz hitz egiten du. Gurasoak nola ezagutu ziren kontatzen du. 11 seme-alaba izan zituzten.

Transkripzioa

- Eta ordun hau bi bizitzakoa zan?
- Bai, bi bizitzako etxi zan. Ta...
- Ze bizi zien bi famili ala ez?
- Bai. Hamen leno... lenlen hemen zan e... bakarra emen zan bizitza...

Ordun e... kalin e... etorkizun haundik ez ta basarri haundiye zala batentzat eta... bi anayek ezkondu emen zien itxea, bat alderdi baten eta bestie bestia... jarri emen zien hemen. Bat hauzkaldien eta bestie alde honta jarri emen zien, nik aitu izen nun. Ta... geo... beayek... harek'e Aizpuru bizi zun eta hemenguk'e Aizpuru apeli due. Ta gero, hamengo nere ama beste batekin e... ezkondu zan o ezkondu omen zan. Nik ez nun ezautu, baiñe ezkondu omen zan. Ta... zea... "viaje de boda"-tik etorri ta gizona ez omen zabil lela burutiken... Behinik behin lanea orbela biltzea jun da ta ustet ixigita billau zebela. Nei amak ez zien hori ehundo esplikau, baiño beste... aman ahizpak eta esplikau zien hori nola... zea in zan. Ta geo... gure aitte, berriz, han Antxumarrin beste bizitza ezkondu ta omen zan. Ta andri hil ein zitzekon partuen, ta geo nola... beste alboko basarrita jun zan... Hue bialdu in ze ben. Ta geo bi alargunek ezkondu. Ta hamaika ume izen giñen gu.

2. 11 senide eskolarako bidean

- **Erref:** AZP-067/003
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:02:22. **Bukatu:** 00:04:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

11 senide izanda, eskolara joateko eta otorduak jateko nola moldatzen ziren azaltzen du. Eguraldi txarra zenean, komeriak izaten zituzten. Aita dotorea zuen, eta maisuarekin ondo konpontzen zen.

Transkripzioa

- Hamaika anai-arreba ziñeten?
- Bai, hamaika bai. Hamaika hazi giñen. Ta...
- Earra tropela!
- Bai, ta... geo... hemen kuadrillie... hauzkaldeko alderdiyen hori. Ta... koadrillie... zea... haundiye giñen ta... eskolan'e pillie ta... eskola juten'e hemen ez zan bromie e! Neskak guardasola bazitun eta gu zakukin juten giñen zeara... eskola! Ta hamendiken Urrustillea... ta hiru bat kilometro eongo die pistatiken zeatiken... hiru bat kilometro eongo die ta... Udara partien... bero haundiye ta ez gendun e... dana agotauta etortzen giñen ta jateko gogoik ez gendun ekartzen ta han beste dendie zan baten pagau hemenguek eta udara partien han jaten gendun. Eta geo, negu partien geu etortzen giñen, baiña eskolan askotan aldadoriekin ta, txingorrrakin da ta, aldadoriekin... zakuek bai, baiña emakumei're guardasola puzka iten zitzeten. Gu juten giñen zakuekin, askotan bustite.... ta Urrustillen eoten zien e... maixu bat eoten zan. Eskola haundiye zan. Maixu bat eoten zan ta... Hala behinik pehin pilla bat aukitzen zun... Eztakit ba... larogei te alleaute izengo zan... eoten. Oin gutxitude dao jendie baiño...
- Larogei ume?
- Larogei ume maixu batentzako. Ta eskola asko're ez gendun ikixi. Ta geo ni zaharrena, mutilletan zaharrena nola nitzen... itula're in ber izeten gendun basarriyen... Ta maixukin gu ondo, gu ondo, gure aitte zana ondo etortzen zan. Txarri hiltzen zaniyen'e eamaten ziyon errealue...
- Errealua...
- Sagarra bitzen zaniyen eamaten ziyon ta patatie're eamaten ziyon... ta

harentzako ona izeten zan. Ta gurikin ondo etortzen zan. Ta gaiñea, bastante... gure aitte basarritarra izeteko ta gure aldien e... "don" zan, gure aitte "don" zan. Jazten... guk ez deu elusiyo hori izen. Honek hala esaten dit. Eta harek uderako zapa, zapa sandaliak... zapatak zearako, botak negureko. Ta txapela're bat zea... bestie elizkizunetako ta guardasolak iual-iual. Ta... bere kapritxoso, hortan kapritxoso dotorie zan... baiña guk ez deu izen, guri ez zion asko erantsi. Honek hala esaten dit.

3. Anai-arrebekin zaintzaile lanetan

- **Erref:** AZP-067/005
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:05:40. **Bukatu:** 00:08:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Arreba zaharrena neskame joan zenean, Juanitok gelditu behar izan zuen ume-zaintzaile etxean, bera baitzen bigarren zaharrena senideen artean. Umeak zaintzeko nola moldatzen zen azaltzen du, eta orduko anekdotak kontatzen ditu.

Transkripzioa

- Ta alde in zuen arrebak, eaman zen. Arreba neskame o... beste zeoze eztakit jornala ematen ziyela ustet... neskame eaman zen. Ta geo, umezai ni. Hainbexte ume... eote... bi urtetik bat iten zen ta! Ta...

- Zu zenbagarrena ziñen?

- Ni bigarrena, bigarrena. Zaharrena eaman zen, ez etxien paltaik iten ez zulako! Hayek azoka ta Azpeitira jutun zien, Azpeitira jutun zien azoka ta. Goizin goizeo erten ta hango enkarguk ein ta astukin. Geo Urrustildik Azpeitira're beste hiru kilometro pasa dade... Han enkarguk, saldu enkarguk eta geo hartu eta andra-gizonak etortzen zien etxea. Ta... geo ni umezai, ta esaten zien: "bueno, esni hemen lagako diat". Batin esan... udaberriye o udarie zan ta: "esni hemen lagako diat eta gosetzen danien hemendiken eman biberoye o holako... esne hau emayozue!". Gu... jakiñe, ba, atie zabalik eta... hauzkaldeko zerien... ati zabalik ta... txakurre pinto txikiye o esaten deuna bageunduken ta... geo umikin harea o honea erten det nik, eta beste umiek'e eongo zien han... eskola jutun ez zienak'e. Bestik eskola jutun zien. Ta... hala, ze in du esne dana eran... txakurrek. Umi gosetu da ta nik umiei emateko ezer ez. Ta behiyek... esnie bitzen banekiye, mutil koxkorra ta banekiye. Ta behiyek larrea bialdute... geo haek illuntzien ta gabin etxin eoten zien. Ta hala jun naiz larrea han esni bituko ote [zien] ontziye hartute ta larrin ez utzi nahi, behiye libre ta ez... aldein iten zien. Geo ardiye ekarri, bitu ardiyei... ta zea esnie egosi eta eman niyon ume horri ta eztakit nola... ez zan e... iñor e... akau!

- Nola ba? Txarra ez zan eongo?

- Txarra ez, baiña esnie fuerteegeye. Ardiyena fuerti izetia, fuerteegeye baiña... ez zan iñorre... Danak e... osasun gogorrekuek izango giñen!

- Zenbat urte zittuzun zuk hori pasa zanen?

- Ba, hori pasa zanien nik e... hamabost bat eo, hamalau-hamabost eo hor izengo nitun. Bestiek, ume txikiyek, han ibiliko nitun nik giran. Ta eman ta... geo ze... azokatik ama're berotute etortzen zan, ama haundiye zan guri... Ta zea, berotute etortzen zan... Ta jakiñe, umiek ama ikusten

zuenin... Ama, titiyen erateko gogo hori ta. Beak esaten: "Ixkuta, ixkuta umie!". Ta hartu umie ta juten nitzen hor hauzkaldea, baso aldea o pisten hauzkaldea. Haik eta bularra hoztu artien, esne beroik ematen baldin baziyon [beheratu] iten zan, ba, umie. Beherakue harrapatzen zuen ta! Berotute etortzen zien, ta haik eta hoztu artien... ta: "ba, etorri zaizte!". Ta etorri... ta bularrien ipintzen zun, ta titi batetik esni eraten eta bestetik "dziii" esni alde iten zion gure amai. Bai, alde iten zion.

4. Etxeko lanen banaketa eta morroia

- **Erref:** AZP-067/006
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:08:31. **Bukatu:** 00:11:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Ama Azpeitiko azokara joaten zen enkarguak erosi eta baserriko produktuak saltzera; oinez joaten zen, 12 km inguru. Hainbeste ume izanda etxean, morroia ekarri zuten laguntzeko. Morroia, ordea, alfer xamarra zen eta hari buruzko anekdotak kontatzen ditu.</p>

Transkripzioa

- Azoka juten zan ordun?
- Azoka... enkarguk, astekuk ekartzea...
- Ta saltzea're bai?
- Saltzea're eamaten zuen; arrautzak eta oillaxkuek... eta ostontzien zerbait'e bai gaztayek diela o... eamaten zuen saltzea.
- Azpeitia juten zan?
- Azpeitia, Azpeitia. Ta han barrotie pasau, merkaue pasau ta... handiken hiru kilometro [...] eta beste xei bat kilometro e oinez... Hamabi bat kilometro ein iten zituen. Ez zebea zea... makala izeten hayek'e! bizimodua orduan latza zan. Oso latza.
- Bai?
- Bai, oso latza. Ta kalin'e gezki. Eskolan ikusten gendun. Eskola juten giñenien...e kalin bizi zienak ogiye palta. Eibertik eta etortzen zien honea arto-iriñeta.
- Eibartik?
- Eibartiken ta etortzen zien arto-iriñeta. Ta geo, morroi bat ekarri zuen. Jakiña, ba, ni ume zaitzen ta eskola're... askotan itxin gelditzen nitzen... Morroi bat ekarri zuen... zea horrek... gure aitte horrek. Ta bastate majaderue zan. Ta ordun itxin udik'e ez genduken. Ez zeuen artien korrienteiken eta dutxaiken ta ez zeuen. Ta hor bertan genduken potzu, baiña txahalentzako ude aska ekarri ber izeten gendun. Ta lehor urti zan, ta bastate jan sekue zauen. Ta egarriye're geyo izeten zen txahal hoyek. Ta hala, esan zigun: "behiyek larrea bialdu ditxiat eta zea... txahalentzako ude ekarri!". Ta "bai". Ta morroyek'e "bai" ta. Hala behinik pehin, morroie alper zamarra're pixkat bazan. Eroso zamarra. Zea "behiyekin ekarri ta behiyekin batea eamangoittu iturrira". Ta sekula txahalak askau be katetiken. Ta hala, ekarri ditu behiyek, ikuillua sartu die, txahalak askau ditugu... ta behiyekin batea iturrira txahalak. Ta hola potzu haundi bet zan.

Oin'e sukalde hau aiñekue ez, baiño[...] erdi tamañokue o hola. Ordun oin baiño haundiyo zun. Ta hala, txahal bat haundi zamar bat. Ta ez sartu nahi. Ude... egarriye bazauken, hola udei ikutzen ziyon... ta ikutzen ziyonien, atzea iten zun. Ta morroi hori sartu da azpira, gu mutil koskorrak, sartu da azpira ta bizkerrien jasotzen hasi da aurea juteko ta... salto in diyo ta ja-ta, ja-ta udetar morroi hori.... dana... holako ondu zauken... udetan, potzuten. Gu atzetik parrez. Ta...

- Zenbat holako pasau...

- Ta... geo etorri ta aittek txahalai ude ekarri al diyoze? Ta morroiye ixilik. "Ez, ez diyo ekarri". Beak eaman ditu. Ta "nola eamandituzue?".

"Behiyeekin ekarri ta behiyeekin batea". Ta ze... "atzea etorri al die ikuillua?". Ta ikuillua, aldau baiño leno ikuillua ikustea! Ta batematek zeoze ein... Geo esplikau niyon, ba, seitu-seitun ez ta... nola zea... "Txahal beltzak", bat beltza zan, "txahal beltzak ez zun sartu nahi ta udei ikutzen ziyon ta atzea iten zan... ta azpire sartu ta bizkerrakin jaso ta aurea ez zea iteko hasi ta Joxe bea bota du potzura!". Ta "zuek ondik ingoituzue haundiyouek!". Eta behi... txahal hoyek ikuillun ikusi zitun ta gustoa.

- Ordun ya lasai.

- Bai, ta ordun ya gustoa. Zenbat ibillera in ber izeten zan!

5. Baserriko bizimodu gogorra

- **Erref:** AZP-067/007
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:11:37. **Bukatu:** 00:12:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Lehen ganadu asko izaten zuten: behiak, ardiak... Ganadua haragitarako izaten zuen. Lursail dezente zituzten, eta haiek landu egin behar izaten zituzten. Bizimodu gogorra zen hura.

Transkripzioa

- Ganadu asko zeukezuen?

- Ba, orduen'e... mordue. Mordue eukitzen gendun. Ta gero geyo euki det nik.

- Ze euki zenuen?

- Zea... behiye eta ardi batzuk'e bai ta behiye eta... oin berrehun bat ardi badaure... ta oin ganaue gutxitude dauket. Oin beste bati eman dauzket e! Nik...

- Eta ganadue ze eukitzen zenduen haragitakua?

- Haragitakua, bai haragitakua. Etxin gaztaen batzuk ein, etxeko familiko esnia, txahalak hazi ta... haragitakua. Behi pintoik ez deu ikusi ondik.

- Terreno asko zeukezuen hemen?

- E?

- Terreno asko?

- Bai e... hemen... hau... hemen bi bizitzeko terreno... ordun bizitzeko bat... terreno juxtukuk zien. Geo goyen aitte zanak eositeko beste hor e...

Urrakiko gaiñaldien ta're belardiye erosita ta han'e belarretan ta... bizitze gogorra ematen zan ordun. Oso gogorra. Oso gogorra. Goizin e... hamengo lanak ein bezperan ein ganau zea... ganajatekuk ta... Gure aitte zanak e...

behin baiño geyotan beanda junda're ez zan akziko haundik eiten ta... Hala behinik pehin, lanak ein goizin goizeo jaikite ta... eune zabaltzeako askotan belardira belarra ebaitzea. Segikin ebaitzen zan ordun! Oin dana makiniz eiten reu (deu), baiña, segikin ebaitzen zan...

- Segaz?

- Segaz. Ta bizimorue e... ordun e... ta kalin'e gaizki e!

6. Errotara ezkutuan joatean pasatako beldurrak

- **Erref:** AZP-067/008
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:12:50. **Bukatu:** 00:15:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Lehen Urrestillatik Azpeitira oinez joaten ziren, bizikleta gutxi baitzeuden. Nuarbeko errotara joaten ziren ezkutuan, eta horretarako nola moldatzen ziren azaltzen du.</p>

Transkripzioa

- Hamen Urrustildiken langilliek Aizpeitira juteko bizikletie ona zan, baiña askok ez zeuken ordun e... bizikletaiken. Oinez jutun zien. Ta eunien pezetie kostatzen emen zala bizikletie ta... bildurrez amorratzen bizikletie erosteko jendie! Ta... ogiye're razionamentun zeuen, eoten zan. Gariye ta etxin iten gendun. Ta hala're errota juteko bildurrez ibiltzen giñen.

- Ze pasatzen zan ba errotan?

- Zeak... kontrabandistak o zea delegauek ibiltzen zien ta! Delegauek, delegauek... Hoinbesteko zea batetiken gora ez zeuen eamateiken. Zea... delegauek ibiltzen zien ta.

- Neurtzen ibiltzen zien?

- Ta han bertan, azpikaldin bertan... errotie genduken, Urrustillen erroti genduken. Urrustildiken... geure auzo dana erroti zeuen...ta hoyeta ez giñen... Juten giñen Nuarbea. Nuarbea jun, karretera kruzau gabe, hamen menditik jun astukin. Ta hala behinik pehin, lelengo bagene(ki)un, trikimailluek hartute geneuzken. Karretera sartu be astue atzin lotu, atzin lotu ta jun ta galdeu: "Hola ta hola etorri naiz artuekin o gariyekin, etorri naiz" ta "eon pixkaten". Harek ihota eukitzen zun ta harek e... zea... goyen ta jasota aukitzen zitun, beheyen errotak geldik harek'e! Askotan gabin ta ibili jotzen... ta geo ibili ez dan bezela zakarrakin ta zikindute ta eukitzen zitun: "hala, eon pixkaten...". Ta goyen, gutxi gorabehera "hemendiken zenbat zakuko kilo junda" ta... beheyen zakuka bat preparatzen zuen. Geo, hemengue pixau ta geo... deskuentue eztakit ehuneko eztakit zenbat kentzen ziun zea... ihotziena. Ta "di-da!" kargau ta ixkututik "aide!" behetik gora. Ta gabien... ta gero mutil koskorrak e... hamalau urte ta ta... Gurien asto lerdo bat bazan, asto ar haundiye zan... ta aurretiken pasaute baldin bazauen bide hortan... Hemen geyo're jutun zien, ba, harea! Usaye aitzen zun asto emie o arra zan "puf, puf" ein ta "au, au, au!". Gu makilka ixilik eoteko ta ez zan eoten! Ta gabien'e orbela mugitzen baldin bazitzekun'e sustue hartzen gendun mutil koskorrak. Ibillerie ikusgarriye ein gendun guk! Ta beste... bestek'e bai hemen'e! Nahiz ta etxeko jeneru euki! Ta Eibertiken'e arto einin honea etortzen... Han'e mixeriye. Han'e mixeriye...

7. Etxeko jeneroa entregatu behar zeneko garaia

- **Erref:** AZP-067/009
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:15:08. **Bukatu:** 00:17:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Etxeko jeneroa erabiltzeko, lehen ezkutuan ibili behar izaten zuten. Behin ama etxeko jeneroa entregatzera joan, eta isuna ordaintzetik libratu zenekoa kontatzen du.

Transkripzioa

- Estraperlo asko eitten zan?

- Estraperlue... geuk e... geure jeneruekin ihotzeko estraperluen ibili ber! Gariye ihotzeko ta artu ihotzeko ta... estraperlun ibilli ber!

- Zen estraperloa eitten zan? Ze jenerona?

- Estraperlue... itxeko jenerua, itxekua, hure estraperlukua ez da. Itxekua da. Hure ihotzea eamateko're ixkutun ibili ber.

- Bai, baiño esan nahi det estraperloko jeneroa ibiltzen zan?

- Ez, ez, ez, ez, ez... ez, ez hori nik ez det ezautu hamen. Hamen ez det ezautu estraperloiken gai hortan. Etxeko jeneru ibiltzeko ixkutuka ibili ber. Estraperlun ibilli ber. Ta...

- Sekula konfiskau zizuen....

- E?

- Iriñik o konfiskau zizuen sekula?

- Ez, ez, ez...ez.

- Ez zizuen harrapau?

- Zea... beste baten e... ama jun da oillaxko pariekin ta gazta batzuk ... ta esnie're bai... Ta Aizpeitiyen zaintzen zeak... delegauek. Azokie saltzea eaman ta delegauek zaintzen. Ta gure amak ordun e... hartu te kanti esne hoyek e... eta eaman dizte grupua eta delegauek eta han kanti hoyek ta delegauek eta andra geyo're hartu ta bestiek geyo eamatea. Ta gure ama horrek aldein ta ayuntamentoa jiyo. Ta zan ordun e... nola zun izena... han e... Printzipalien eoten zan zea bat gizon batek esan diyo, mutil zarra zan, ta: "Hola ta hola in die. Ta... ze in ber det nik oin?" esan emen ziyon. "Ta aldein in al diyozu?" ta "bai, bestiei ekartzea jun zien ta trastik han laga ditut; gazta, esne ta patatie're baietz ustet ta arrautzek'e bai. Han laga ditut... Ni jakitea etorri naiz honea ze in ber deten". Ta "bueno, exkuta zure burua!". Ta hartu exkuta, handik alde in. Ta astu hartu ta etxea utzik etorri zan. Etorri emen zan! Ta ordun e... etxeko jenerua eman ta delegauekin munta (multa) zenduken. Ta munta (multa) zenekin pagau? Ordun diru're gutxi izeten zan!

- Urri...

- Bai, bai oso urri. Kalin'e bai e!

8. Gerra ostea: miseria zegoeneko garaia

- **Erref:** AZP-067/010
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:17:13. **Bukatu:** 00:19:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Lehen diru gutxi zegoen. Argindarraren posteak zuritzen zituztenei duro bat ordaintzen zieten orduko, eta ikaragarria zen hura. Euria egiten zuenean, euritatik babesteko nola-hala moldatzen ziren etxean. Kalekoek gosea pasa zuten gerra ostean, eta baserrikoek janaria noiz emango zain egoten ziren.

Transkripzioa

- Zenbat denbora da, ba, oindiken orduko durue... gu gogortu ezkeo, hazi ezkeo... guk hogetaka urte giñuzela orduko durue hasi emen ziela postie zuritzen, postiek zuritzen. Ta hor...

- Nola postie zuritzen?

- Postiek, oin hor hormigoizkuek eta izeten die zeak Iberdrola ta zea... Telefonica ta hoyek. Baiña leno ordun iten zen piñu bota, zuritu... geo baiñu baten pasau zea baten... ipiñite zaukeben pistina haundi bet... han eztakit zenbat ordun euki, ez usteltzeatiken. Ta poste... eta hango lanien orduko duru pagatzen emen zebela. Barnolako "Hankaundi" ardozalie izen ber zan ta "eztakit zenbat tanke erdi eratan emen zitik (dixik)". Auzokue gure aitte zanak eta "eran letxeskek orduko duru kobrau ezkeo!". Ordun'e

jornalak... orduko durue... ikearriye ordun! Hoi geotxo, geo. Leno gauzak hemen eskas zien, oso eskas. Ta nik eztakit, hainbexte... hamaike ume ta gurin neskak guardasola ta gu zakuekin juten giñen eskola. Ta beste tokiten halaxe... o okerro iual.

- Bate be iual?

- E?

- Bate be iual?

- Bate be ez zien iño zeoze... hau o hori eamango zeбен, zakube o hau-hori. Ta ordun oiñetakoik'e abarkaik'e ez zan gomazko zeaik... beste zea kubiertakin ta indekuek izeten zien. Oin bezelako katiuska ta xiraik eta ez zan ordun. Ordun ez zan. Ordun e... gauzak oso gogor zien. Ta hor e... kalien pixu bat badauket nik zeien...ta oin "Sartunahikue"-n ama pamilikue... zeatu nun. Hayek arta-alie ogik ez ta errekreoko denporan guk'e zeoze eamaten... ogiye o zeoze eamaten genun basarrin indeku o... ta guk puxketa bat eman zai eoten zien hayek. Eta hayek... amak ipintzen ziyen labin tostaute arta-alie errekreoko denporan jateko. Kalin ordun geizkiyo zan basarriye baiño. Ta basarrin gezki, baiña ondiken.

- Baiño baserrin bizi zana betire...

- Jana zeuken, jana zeuken... itxeako esnie ta jana zeuken, jana zeuken. Ta holaxe bizimorue eaman gendun hamen.

9. Gerra garaian eroritako hegazkinaren oroitzapena

- **Erref:** AZP-067/015
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:24:48. **Bukatu:** 00:27:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra garaiko oroitzapenak kontatzen ditu: gerrako hegazkin bat erori zen, eta hura ikustera joan ziren. Azpeitia inguruan ez zuen troparik ez bonbarik ezagutu.

10. Aitaren ganadu onari esker, etxean goserik ez

- **Erref:** AZP-067/016
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:27:44. **Bukatu:** 00:29:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Gerra garaian ez zuten goserik pasa etxean, aita ganadu ona baitzuen, eta hura saltzean dirua lortzen baitzuen. Dendan erosketak egitean, ordaintzeko hainbat modu zeudela azaltzen du. Aitaren ganaduak sariak irabazi zituen, eta ganadu haiekin zer egiten zuen kontatzen du.</p>

Transkripzioa

- Goseik pasa al zenduen?

- Ez. Gose... gose-gosik ez. Itxin eukitzen gendun e... ardiyek etxin eukitzen

giñuzen. Ta akordatzen naiz batien... Nik eztakit nundik sortzen zun, baiñe gure aitte zana ganauzale ona zan. Premiyotan ta ibiltzen zana zan... Ta urtien e... behi bat eo saldu're iten zuen ta diruten saltzen zitun. Ta dirue... eztakit... hainbeste ume izeteko... ta neu ta [hau ta hare]... hamen beste auzokuei beira jarri, hor lerta ta basarrikuk ta hoyek... gu dirue... ogiyeta juten bagiñen'e gu diruekin bialtzen giñuzen mutil koskorrak, kalea ogitea juten bagiñen. Ta auzokuek, denda juteko lakai babie ta... lakai... ta hola ematen zituen pagatzeko. Nik hori goguen daket. Gurin beti... ganau ona aukitzen zun gure aitte zanak. Oso ona, premiyotan ta ibiltzen zana. Ta oso ona aukitzen zun.

- A, bai. Premiotan ibiltzen zan?

- Bai, bai. Oso... oso ganauzale ona zan.

- Eta... nola preparatzen zittun... premiotako ganadue?

- Ba... kargu ein, raza ipiñi. Gorriyek eukitzen zitun. Raza ipiñi, kargu in... ta

- Ze ipiñi?

- Raza, raza ona...

- Raza ona?

- Raza ona ipiñi. Ta geo... ixko... hayen umiek ixkotako hor zea oin haziye ipintzen ibiltzen die... Ordun eoten zien hermandadiak hor Elosun e... baillera baten ixko batek ipiñiko zun, handik bi o hiru urtea beste bati tokako zitzekon. Ta ixkotako ta saltzen zitun. Ta hemen ibiliteko gure behiyek... salduteko... Madriden'e premiyotan izenda emen dao. Hayenetakue.... A hor Zeler eo Axkoitiko basarriko zea batena... Nik ezautu nun hango aitte zana, geo ezautu nun baiña... harek nola etortzen zan honea ta behi... zea horren umiek eta nola eamaten zitun ixkotako ta nola eamaten zitun. Hayek gogun dauzket.

11. Olio falta zela, ezin edozer gauza jan etxean

- **Erref:** AZP-067/017
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:29:33. **Bukatu:** 00:33:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Behin oliorik ez zuten etxean, eta amak haragia erostera bidali zuen, oliorik gabe ere prestatu ahal izateko janaria. Harategian, ordea, haragirik ez, eta arraina erosi zuen Juanitok. Etxera iritsitakoan, amak errieta egin zion arraina ekarri izanagatik, eta aitzak ardirik onena hil zuen etxean jatekoa izateko.

12. Lehengo otorduak: arraina merke eta barazkiak ugari

- **Erref:** AZP-067/019
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:33:44. **Bukatu:** 00:35:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Lehen olio falta zenez, arraina merkea izaten zen. Bakailaoa asko izaten zen garai hartan, eta amak nola prestatzen zuen azaltzen du. Ama ez zen arrainzalea, baina aita bai. Normalean zer jaten zuten otorduetan aipatzen du.

Transkripzioa

- Baiña garai hartan arrayik jaten al zun jendek?
- Bai, gure itxin ama...
- Arraye... arraye garestie izengo zan ba?
- Ez, ez zihero merke. Ordun, oliyu falta zan ta arraye errez harrapatzen zan. Ordun angulie ta noiznahi gure amak'e itxea ekarri ohi zun. Itxea, itxea ekarri ohi zun zea itea...
- Bai, e? Jan ohi zan arraye etxen...
- Bai, bai, bai. Bakaillua asko. Ta gure ama arrai zalie ez zan. Aitte bai arraizalie zan. Baiña bakaillua amak jan ohi zun ta ipiñi're bai. Ta bakailluei iten ziyon, jeneralien, osoik ekartzen zitun bi o hiru eo ekartzen zitun astiartien. Ta harek ipintzen zuen e... ba(ra)tzuri zopie iteko're buzten aldie o hegatsak eo ipintzen zitun ba(ra)tzuri... bizitasuna ematen ziyon, ba, ta! Ta hala, bakaillau hori hurrena tomatiei ipiñiko zuen, tortilla're bai batzutan asko gazitu... gazi asku're bai batzuten... Ta behinik pehin, bakaillaue asko gastatzen zan. Arraye gastatzen zan. Baiña ama ez zan arraizalie, aitte bai. Aittei txitxarrue ta danetik... harek hezurreaño dana txupatzun zun... ta amak ez, ama... Geo geo're, geo gero're... zea... ama ta biyok bizi giñen hemen. Anayek eta ezkontute ta hure morroie're bai... ta Donositiken "mediana" ear bat ekartzen ziyon, buztenin lotu ta... arrebak eta, nere arrebak ta ekartzen ziyon ta... Ta hala behinik pehin, estimaziyo haundik ez ziyon ematen, baiña: "bueno, hau jan in ber du!". Ta hala behinik pehin, zea... burue ta buzten aldie ta lagako zitun periodikun ta beste erdi alde hori ipiñiko zuen. Ta han usteltzen zien, geo katuentzako ber izeten zan. Zea hoyek... buzten alde hoyek. Ez zan arraizalie. Aitte bai.
- Bestela normalen jatordutan ze jaten zan?
- Ba, potajie beti. Baba gorriye asko! Ta garbantzue jayetan ta arroza're bai! Baba zuriye're bai, etxin iten gendun hori. Ta baba zuriye're bai ta. Ta geo, iluntzien porru-patatak diela o azelgak patatakin diela o tipo horta... Ta gaiñin arrautzan bat ta katillukan bat esne.

13. Etxean morroi fina izan zutenekoa

- **Erref:** AZP-067/022
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:37:52. **Bukatu:** 00:40:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Etxeko morroiari buruz hitz egiten du. Morroiari mantenua eta diru pixka bat ematen zitzaion lan egitearen truke. Mutil txukuna eta fina zen, baina tailer batera joateko garaia ere iritsi zitzaion; pena handia hartu zuten etxean horregatik, eta ahal zutena egin zuten morroia etxean gera zedin.

14. Baserriko bidea egin eta autoa falta

- **Erref:** AZP-067/023
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:40:54. **Bukatu:** 00:42:34

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Juanitok beti egin izan du lan baserrian. Ugartetik baserrirako bidea Juanitok berak egin zuen aurreztutako diruarekin. Bidea bukatutakoan, ordea, ez zitzaion dirurik geratu autoa erosteko, eta denbora bat itxaron behar izan zuen hura aurreztu zuen arte.

15. 16 urterekin Donostiara ikastera

- **Erref:** AZP-067/025
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:43:40. **Bukatu:** 00:47:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

16 urte zituela, Donostiara bidali zuten ikastera; izan ere, berak ezin izan zuen eskolara joan txikitan, baserrian lan egin behar izaten zuelako. Donostiako eguneroko bizimodua nolakoa izaten zen eta zer lan egiten zituen azaltzen du.

16. Donostiako eskolan janaria soberan

- **Erref:** AZP-067/026
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:47:18. **Bukatu:** 00:48:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Jan eta lo Donostiako eskolan egiten zuen. Han janari gehiegi zegoela iruditzen zitzaion, baserriko bizimodura ohituta baitzegoen.

Transkripzioa

- Jan ta lo bertan eskolan?

- Bai, bai, bai, bai. Jana zeuen e... hemen basarrin ohituta... derrotxe bat iruitzen ziten nei. Hernania jun da hermano zea enkargau horrek eta beste Hipolito len esan deten... txahalak erosten zituen Hernani aldean jun da, txahal gaztiekin hor e... esnientzet txahalak. Ta xerradak eta txuletak eta solomillo ta hoyek aprobetxatzen zien eta egosteko haragiye... saldie iten zen eta iñoi ez zitzekeon komedorea egosteko haragik eamaten. Ta hemen egosteko haragiye garai hartan ona zan. Saldie ein, basura juten zan hua. Arrayekin iual-iual. Nei hamendik ohituta... derrotxe bat zeola iruitzen ziten. Ta geo, han Salaberria o bazan barkuk zauzkena Errenteyen o Pasayen o barkuk zauzkena. Hue legatzeta ta ibiltzen zan. Ta furgoneta bat zauen ta Salaberriagandik etortzen zanie... ekartzen zeuben furgoneterie ta legatza labien... ta fri... [zea ein da]... danea legatza're sobre...

- Nahi aiña...
- Jana, jana sobre zeon han!

17. Donostiatik etxera noiz eta nola etortzen zen

- **Erref:** AZP-067/027
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:48:26. **Bukatu:** 00:50:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

<p>Donostian ikasten egon zen bitartean, etxera herriko festetan bakarrik etortzen zen. Etxera iristeko zer garraiobide erabiltzen zuen azaltzen du. 2 urte egon zen Donostian ikasten, eta lagun euskaldunak zituen han.</p>

18. Soldadutzan sukaldari ibilitakoa

- **Erref:** AZP-067/028
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:50:06. **Bukatu:** 00:53:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutza Gasteizen hasi zuen eta Huescan jarraitu zuen. Gasteizen sukaldari izatea tokatu zitzaion, eta zer lan izaten zuen azaltzen du.</p>

19. Soldadutzan prestatzen zituzten menuak

- **Erref:** AZP-067/029
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:53:00. **Bukatu:** 00:56:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutzan, menua otorduaren eta urtaroaren arabera izaten zen. Menutik kanpo zeuden janariak nahi izanez gero, gehigarri bat ordaindu behar izaten zuten. Soldadutzan gustura ibili zen, nahiz eta lan asko egin behar izan zuen.</p>

20. Soldadutzan tripakiak erre zitzaizkionekoak

- **Erref:** AZP-067/030
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:56:16. **Bukatu:** 00:58:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Tripakiak prestatzen zituzten noizean behin. Haietako batean, tripakiak erre zitzaizkion eta estualditik ateratzeko zer egin zuen kontatzen du.</p>

21. "Bandera española" jateko

- **Erref:** AZP-067/031
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:58:27. **Bukatu:** 01:00:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutzan, behin "bandera española" jarri zuen bigarren plater gisa: hau da, tomate artean tortilla. Asko gustatu zitzaien ideia soldaduei.</p>

Transkripzioa

- Ta beste baten'e akordatzan naiz... zea... minuta... eguardiyeen papela ipintzen ziguen bakoitze.... letu ta eztaikit ze ta bigarrengo platue behinek pehin "bandera española".

- Hara, zer zan hoi?

- Bai, neuk ze ipiñi ez naikiyen, ta "bandera española" ipiñi nun. Ta geo eztaikit, ba, "piletes con patatas fritas" o eztaikit ze ta... geo postrie. Ta... hala behinik pehin, teniente enkargauk, ez kapitan enkargauk zan, kapitan enkargauk zea... Villegas. Ta hala behinik pehin kabuei hots ein diyo. Zeak e... bi zerbitzen ibiltzen zien goante zuriyekin, bi mutil ibiltzen zien nahi det esan o... hamazazpi bat lagun eo geyena eoten zienien, ta bost'e bai... ta bi ibiltzen zien zerbitzen. Ta hots ein diyo zeai... kabuei enkargauk... sukaldekuek eta: "¿Qué es esto de bandera española?"... ehundoko azento... andaluze zan ba...

- Harrituta...

- Bai, "¿Qué... eso bandera española?"... "¿Pues?" ta "Aquí pone..." zea... "ensaladas, segundo plato, bandera española, filetes con patatas fritas y postre... pone. Y, ¿qué... qué es esto?". Ta "Pues no sé lo que es". Ez zekiyeen, ez zekiyeen harek eta! Neuk indeko minuta zan, neuk erainazitako minuta zan. Ta geo nei hots ein zien ta... nik jakin'e erderaz ikearri ez ta dardarraz... ta "tranquilo, tranquilo, tranquilo... ¿Qué es, esto bandera española?" ta "A... esto es una chorrara. He puesto eso..." eta "Pues, ¿qué?" ta "bueno, en vez de poner... tortilla con..." zea tomatikin tortillie "en vez de poner tortilla con tomate, le pones los dos lados tomate rojo y medio, en medio amarillo, tortilla. Y pone... hace bandera española". Ta "Bueno a ti... te quitamos galones y te ponemos, te vamos a poner a ti" esan zien. "A ti te..." kabuei esan ziyon "a ti quitar galones y le vamos a poner a ti". "No, no hace...". Jakiñe, ba, tortillie bi exkiñetan ipiñi zea...

- Tomatia...

- Tomati ta erdin horiye ta...

- Bai, ba, "bandera española"
- "Bandera española" ipiñi nik ta...
- Beitu!
- Holako txorradak ibiltzen giñuzen..

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com